

Olatu Talkako ibilbide eta tailer berezietan izen-emate epea ireki da

Olatu Talkan hainbat ibilbide, tailer eta ekitalditan izen ematea ezinbestekoa izango da eta kasu gehienetan epea maiatzaren 20an bukatuko da. Izen-emateak www.olatutalka.eus webgunean egin behar dira. Jaialdian hiriaren bestelako ikuspegi izateko hainbat ibilbide izango dira. Gustu eta era guztietako ibilbideak: batzuk itsasontzian edo traineruan, beste batzuk oinez, beste bat gurgildun ibilgailuetan... Tailerrak ere molde guztietakoak izango dira: parkour, film-labur analogikoa filmatzea, yoga, Roller Derby, marrazketa maratoia eta beste asko. Ibilbide eta ikastaro guztiak doan izango dira.

Hona hemen izen-ematea duten **ibilbideen zerrenda**:

- **Baleei buruzko ibilbidea:** Maiatzaren 26an, larunbata, 17:00etatik aurrera Aquariumeko kanpoaldean, baleazaleek Euskal Herrian utzitako ondarearen berri emanez ibilbide bat antolatu du Ambar elkarteak. [+ info](#).
- **Bisita gidatua Rezola fabrikara:** Maiatzaren 26an, 11:00etan, Rezola fabrika ezagutzeko aukera. [+ info](#)
- **Donostiako hiri-legendak:** Maiatzaren 26an, 11:00etan (euskaraz) 17:00etan (gaztelaraz), ibilbide kultural gidatua egingo da Donostiako erdialdetik, hiriri buruzko bitxikeriak jolas moduan ezagutzeko. [+ info](#)
- **Itsas bidaia didaktikoa:** Ambar Elkarteak antolatuta, itsas bidaia berezi bat izango da, bertako itsas fauna ezagutzeko, maiatzaren 27an, igandea, 10:30ean eta 12:00etan, Kaiko lehenengo moilatik abiatuta. [+ info](#)
- **Kontxa arraunean:** Maiatzaren 26an, larunbata, 11:00etatik 20:00etara, traineru batean arraunean Kontxako estropadaren inguruko historia eta istorioak ezagutzeko aukera ezin hobea egongo da. [+ info](#)
- **Animalien inguruko ibilbidea Miramonen:** Miramongo basoan ibilbidea egingo da bertan bizi diren txori eta bestelako animalia espezieak ezagutzeko, maiatzaren 26an, larunbata, 11:00etan. [+ info](#)
- **Uliatik ibilbidea:** Uliako tranbia desagertu zela aurten mendea beteko dela aitzakia hartuta, tranbia horren bitxikeriak eta istorioak berpiztuko dituen ibilbidea antolatu da Ulian barrena, maiatzak 26an, 10:00etan. [+ info](#)
- **Ginkana gurgil gainean:** Gipuzkoa Solidarioak antolatutako Alfombra hegalaria ekimena, maiatzaren 26an, 10:30ean, abiatuko da Kursaaletik, bizikletan, trizikloan, monopatinean, gurgildun aulkian, irristailuetan. Kultur aniztasuna eta mugikortasun inklusiboa da jarduera honen helburu nagusia. [+ info](#)

Hona hemen izen-ematea beharko duten **jarduerak fisikoak**.

- **Mendi Bizikleta:** Maiatzaren 26an, 10:00etatik aurrera mendi bizikleta gustuko dutenentzat bi aukera izango dituzte: 10 urtetik gorako haurrentzat ikastaroa Arrobitxulon eta helduentzat ibilbidea Uliatik. [+ info](#)
- **Parkour ikastaroa:** Maiatzaren 26an Parkourra ezagutzeko aukera izango da Lotzen ADD elkarteko kideekin. Ikastaroa bi taldetan banatuko da: 8-13 urte artekoek 11:30etik 13:00etara egingo dute ikastaroa Etxieta parkean eta 14 urtetik gorakoek 17:00etatik 18:30era Txaparrene pasealekuan. [+ info](#)
- **Roller Derby:** Maiatzaren 26an, 17:00etan, Easo Avengers taldeak Roller Derby tailerra eskainiko du.
- **Tai Chi Chuan ikastaroa:** Maiatzaren 26an, 12:00etan Memoriaren lorategian. [+ info](#)
- **Yoga naturan ikastaroa:** Maiatzaren 26an 10:30etik 12:00etara Yoga ikastaroa Memoriaren Lorategian. [+Info](#)

Hona hemen izen-ematea beharko duten **jarduerak artistikoak**:

- **Bertso eskola irekia:** Maiatzaren 25ean, 17:30etik 19:00etara. 16 urtetik gorakoentzat bertso eskola irekia antolatu du Añorga Kultur eta Kirol Elkarteak. [+Info](#)
- **Donostia Sketch:** Maiatzaren 27an izango da marrazketa maratoia, 10:30etatik 18:00ak arte, eta parte-hartzaileek Donostiako Zuloaga plaza inguruan antolakuntzak zehaztutako zenbait lekutan marrazkiak egin beharko dituzte. [+Info](#)
- **Horma irekiak:** Kontadores zentroko kanpoaldeko hormetan murala egiteko aukera eskainiko du ekimen honek. Izen-emateko orduan muralaren zirriborroa bidali beharko da. [+ info](#)
- **Larratxo 8mm:** Maiatzaren 26an, 8mm-tan film labur analogiko bat grabatzeko aukera izango da. [+ info](#)
- **Light Painting:** Maiatzaren 26an, larunbata, 22:00etan, light painting saioa egingo da Zurriola hondartzan.
- **Poesia emanaldia interaktiboa:** *Las olas tienen nombre de pájaro* izeneko ekimena maiatzaren 26an, larunbata, 13:00etan, Cristina Enea parkean izango da. [+ info](#)